

ZAZPI TA ZORTZIGAREN BATZARALDEAK

(Donostia'n Gipuzkoa'ko Aldundiaren jauregian, lotazilaren 22 ta 23'an).

ALKIETAN: Azkue, Agife, Broussain, Campion, Eleizalde, Eguzkitza, Intzagarai, Landerreche, Lhande, Olabide ta Urquijo.

1. Azken batzafaldearen ondorean euskaltzaiñ ufgazle-gaiak emandako erantzupenak Idazlariak aipatu-ta irakufi zituan: iru ezezko ta bi baiezko. Ezezkoak, E. Bustintza (Bizkaia), Georges Lacombe (Benabate) ta B. Adema apaizarenak (au Lapurdikoa); baiezkoak, Teodoro de Arburua (Echalar, azar. 13) Napaftar ta J. Etchepare (Aldudes, azar. 20) benapaftařarenak.

Era berean euskaltzaiñ ufgazle batzuen onespene ta eskefak agertu zaizkigun: Carmelo de Echegaray (Gefnica, azil. 16), P. Manuel de Arriandiaga (Madrid, azil. 19) ta Albert León'enak (Baiona, azil. 26).

Gero gure Buruzagiak irakufi zigun Patricio de Orcaiztegi Tolosa'ko Apaiz-nagusiak idatzi zion ezezko erantzupena.

2. Aita Olabide'k zuzendutako autafkigintza-gai ta Euskalkaskuntza'rekiko yafundbide befia Euskaltzaindia'k aztertu ta onafu zituan. *Araudia*'ren bigafen ateraldiko gutunean aufki ditzaketzu.

3. Azkenik Euskaltzaindia'ri eman beaf zitzayon izenez ta Araudia'ren azterpengai batzuez arduraz itzegin zan.

BEDERATZI TA AMARGAREN BATZARALDEAK

(Donostia'n, Gipuzkoa'ko Aldundia'ren jauregian, urtarilaren 8'an)

ALKIETAN: Azkue, Broussain, Campion, Eguzkitza, Eleizalde, Intzagarai, Landerreche, Lhande, Olabide, Urquijo ta Cincunegui euskaltzaiñ ufgazlea.

I URTARILAREN 7'ko BATZARA (IX'na)

1. Euskal-Efiko Aldundi, Udal, Alkafo go ta Baltzueri, euskerari dagozkion gai oroetan Euskaltzaindia'ren erabakiak onetsi ta eutsi dagiezala eskatzea itzartu zan: orobat, Efian agertzen diran albistari ta izpafingi guziei.

2. «Bañeko Araudia»-ri azken ikustaldi bat eman zioten. Oñela, 3, 11, 17, 30, 32, 44, 45, 46, 47 ta 48 g. arauak azteftu zituzten, batzuk zuzenduz, besteak ziran bezala gordetzen zituztelarik, ta lan oñetzaz betikotz gogoñtua gelditu zan *Euskaltzaindia'ren bañeko araudia*.

3. Geroxe, eztabaidan ezafi zan, *euzk* ala *eusk* danetz gure izkuntzaren izenak dakafen len itz atala. AZKUE'k, «*eusk*» antziñakoak ta euskal-alderdi geienak darabilten itz ta elekera zala; ta EGUZKITZA'k, orañ beñikpeñ askok, ta balimba geienak Egoaldeko Euskal-Efian «*euzk*» dasatela, aipatu zuten. Afloa luzaro ikef ta azteftuz gero, autafkitara eman zuten. «Eusk» otsaren alde zortzi autafkik, ta «*euzk*» aintzat artzeko bik yo zuten. Beraz «*eusk*» idaztea bein-beintzat erabaki zan.

4. Izen oñen len atala zuzendu ta, bigafena azteftu zuten: ¿euskara ala euskera? Lan gafatza, guzien aburuak bateratzea. Ipañaldeko iru euskaltzaiñak ta Napañar biak, «*a*»-ren alde; «*e*»-ren alde Bizkai eta Gipuzkoar bostak.

Lenengo autafkian ori. Bigafenean «*a*»-tiafbat «*e*»-tiaftu zan. Irugafenak beste bat «*e*»-ren alde bildu zuan. Beraz, «*e*»-ren alde iru bakañik aufka ziralarik, *euskera* jafi bear zala erabaki zan.

5. «Euskera» zanez geroz ¿nola esan bear genuan: «*euskeldun*» ala «*euskaldun*»? Ortan, eñazki, bigafena dala gaur egunean erabiliena, erakutsi izan zan. Autafkitara yo-ta, zazpi izan ziran «*a*»-ren alde, ta oñela «*euskaldun*» esan eta ezafi bear zala itzartu zan.

6. Gero «*academia*», «*académico*» ta abaf euskeratzeko era egokiena zeñ izango ote zan ikeftu zuten.

AZKUE'ren esanaz, «académico»-rentzat «euskal-zaiñ» erabiltea, guziek onetsi zuten. «Academia»-tzaz guda gogoragoa izau zan, baña, noizbait, «-di» atzizkira oro bildu ziran, ta izen auxe aitatu zuten: «Euskalzain-di-a».

7. Azkenik, «euskalzain» ala «euskaltzain» izango ote zanetz eztabaidatu zan. «Tzain»-en alde, irakurkizun luze ta mamintsu bat irakurri zuan EGUZKITZA'k; ta «zain»-en aldez apaindutako beste irakurkizun ikusgafi batez erantzun zion AZKUE'k. Bi ikerpen oriek gutun onen bigaŕen Atalean ediro ditzaketzu. (1).

Autafkitaratu-ta, «zain»-en aldeko bost agertu ziran, eta lau ostera «tzain»-en alde, ta txartel zuri bat gaiñera.

Bigaŕen autafkitaldean «zain»-ek 6, ta «tzain»-ek 4; irugaŕen ta azkenean «zain»-ek 4, ta «tzain»-ek 6 bildu zituzten

8. Ori epaitu-ta, abots batez, ementxe dakarzkigun euskal itzak aitatu ziran:

Lengua vasca a) nombre: *euskera*.

» b) prefijo: *euskal*.

Vasco: *euskaldun*.

Academia de la Lengua Vasca: *Euskaltzaindi*.

Académico » *euskaltzaiñ*.

Cargo de » *euskaltzaingo*.

II URTARILA 8'ko BATZARA (X'na)

1. Euskaltzaindia'ren bi Batzordeetako burutzat: Campion eta Broussain, autatu zituzten Yaursaile'erako; Ikerisaile'erako, Urquijo.

2. Gregorio de Maidagan apaiza, idazlari ta idatzaiñpeko autetsi zan.

(1) Eguzkitza'rena: «*Euskalzain ala euskaltzain?*», ta Azkue'rena: «*Gure Academia oni dagokion euskal-ixena*» Ikus. «*Euskaltzaindia'ren agiriak*» izendun gutun aunen II'g. atalean.

3. Bizkai ta Gipuzkoa'ko Aldundieri, Bilbo'ko Udalari eta *Eusko-Ikaskuntza*'ri berengandik artutako laguntzagatik, biotzetikako eskerak ematea onetsi zan.

4. Euskaltzaindia'ren ikufitza «Ekiñ eta yafai», eta beraren ikufidia Areitz Gurutzeduna izango zala erabaki zuten.

5. Elizti-ikaskuntzari yafaitzeko atzefira yoan nai litezken ikasle gazteak lagundu eta sarista zitzaten, Aldundi'eri eskatzea agindu zan.

6. Idazkerataz yafidun zan geroxe. Eztabaida barik, izki-ikuf aunitz egokietsi ziran. Bakañ bat astiroago begiratu izan zan, «s» bustiari (eliztian esan oi dan bidéz) dagokiona. Autafkitara yo-ta (autafki batzuk aufka zeudelarik), izki aren ikufitza «x» aute-tsi zan

Beraz, Euskaltzaindia'k beretzakotu duan euskal abeze auxe da:

a, e, i, o, u, ü

a, e, i, o, u, ü (Suduñ-aboskientzat, euskalkiren baten beañ balira, izki orien gainean maña txikibat jafi.)

b, d, ð, f, g, h, j, k, l, ð, m, n, ñ, p, r, s, x, t, z, ts, tx, tz, y, z.

7. Euskaltzaindia'k gure izkerazko idazle guztiei eskatzen die aären, ahal dalarik beintzat, idazkera auxe, ta besterik ez, erabili dagiela.

Oafak:

1. Ona egun artan egin izan ziran autafkien gora berak:

A. «*Eusk*» ala «*euzk*»-en alde:

«*Eusk*»-en alde: 8 autafki.

«*Euzk*»-en » 2 »

B. Eusk-«*ara*» ala eusk-«*era*»-ren alde:

Len autafkaldian: «*ara*»-ren alde, 5; — «*era*»-ren alde, 5.

2'gafen » » 4;— » 6.

3'gafen » » 3;— » 7.

C. Eusk-«*al*»dun ala eusk-«*el*»dun'en alde:

Eusk-«*al*»dun'en alde: 7 autafki.

Eusk-«*el*»dun'en » 3 »

D. Euskal-«*zain*» ala euskal-«*tzain*»'en alde:

«*Zain*»'en alde «*tzain*»'en alde.

1'engo autafk. » 5 » 4 (ta zuri bat)

2'gafen » » 6 » 4

3'gafen » » 4 » 6

2. Egun aftako bigafen batzaraldiko 7 gafen erabakiaren arauaz, Euskal-Efiko idazle geineroi oaf au gure idatzaiñak bialdu zien:

«Donostian, ila aunen 7'an Euskaltzaindia'k izan eban Batzafean, abots batez, dafain erabagi auxe aftu eban:

«Gure Erian agertzen diran albiztari edo izpañgi oroei eskatu, euskerari dagozkion gai guztietan, naiz idazkera, iztegi ta enparauetan, Euskaltzaindi aunen erabagiak onetsi ta eurentzakotu dagiezala».

Erabagi ori betetzeafen noakitzu orain, berauxe zeuri adi-ara-zoaz, eskakizuna aintzakotzat aftuko dozularen itzadopenaz.

Goiko Jaunak luzaroan yagon bezagi».

Bilbo 1920-Urtafilaren 15'an.

Euskaltzaindia'ren Zadolflaria,

Eleizalde'tar K.

Beaf bezela,

Euskaltzainburua